

Bezeroekiko harremanean adituak garenez, esperientzia berezi eta pertsonalizatua eskaini nahi dugu. Lehen kontaktutik, zuzeneko interakzioak eta banakako saioak eskaintzen ditugu gure musikoterapia-terapeutekin. Gainera, aurrez aurreko ekitaldiak antolatzen ditugu, hala nola, ate irekien jardunaldiak, familiekin aurrez aurre jarduteko eta gure zerbitzuen balioa erakusteko aukera ematen dizkigutenak, komunitatearen parte-hartzea sustatuz eta gure ikastetxearekiko loturak indartuz.

Jarraian, gure online zerbitzuen, automatizatuen eta autozerbitzuko zerbitzuen eskaintza zehaztuko dugu, baita gure lankidetzak eta komunikazio-estrategiak ere.

Hasteko, bezeroekiko harreman pertsonala izango dugu, zuzeneko interakzioaren bidez, arreta pertsonalizatua eta banakako saioak eskainiz musikoterapiako terapeutekin. Terapeutek haurren eta familien beharrak sakon ulertzeko aukera izango dute, terapien eraginkortasuna hobetuz. Baita ere aurrez aurreko ekitaldiak eginez. Ate irekiak, ekitaldiak eta jardunaldiak antolatuko ditugu, familiekin pertsonalki elkarreragiteko eta gure zerbitzuen balioa erakusteko. Ekitaldi hauek, gainera, komunitatearen partaidetza sustatuko dute eta familiei zentroarekin lotura sendoagoa izaten lagunduko diete.

Online zerbitzuak erabiliko ditugu gure zerbitzuamodu eroso batean programatzeko. Hau da, online erreserba sistema bat ezartzea, gurasoek saioak programatu, kontsultak egin eta zerbitzuengatik modu eroso eta seguruan ordaindu ahal izateko.

Gogobetetze inkesta izango ditugu. Horrela, saio bakoitzaren ondoren inkesta automatizatuak sortuko ditugu. Bezeroen iritziak biltzea eta horien arabera hobetzea funtsezkoa izango da gure kalitate estandarrak mantentzeko.

Kolaborazioak izango dira baliabide garrantzitsu bat gure zerbitzua gehiago hedatzeko. Osasun zentroetan eta hezkuntza zentroetan kartel promozionalak jarriko ditugu gure irudia ezagutzera emateko.

